




# ALDAKETAREN SUGARRA

---

*Inés Pérez, Elene Amiano eta Nora  
Amunarriz*







# Aldaketaren sugarra

Elene Amiano,  
Nora Amunarriz eta Inés Pérez





# Aldaketaren sugarra



## AURKIBIDEA

Testuinguru historikoa	.....	<b>3</b>
Poxpologileen ezaugarriak	.....	<b>8</b>
Britania Handiko poxpologileak	.....	<b>10</b>
Carabanchelgo poxpologileak	.....	<b>13</b>
Irungo poxpologileak	.....	<b>17</b>
Rosita Iglesias	.....	<b>19</b>
Bibliografia	.....	<b>21</b>
Argazkiak	.....	<b>22</b>








# Testuinguru historikoa



# 1. Industria iraultzaren hastapenak

Frantziako iraultzak aldaketa sakona eragiten du mundu osoan. Iraultza honekin mundua Aro garaikidera igarotzen da non gutxi-gutxira zabaltzen hasten dira ideia liberal berriak.


Industria iraultza jaio zen aldaketa-denbora horretan, 1750 eta 1850 artean. Batez ere, Britania Handian eta gero pixkanaka zabaldu egin zen beste Europako lekuetara.



BRIDGE OVER THE MONONGAHELA RIVER, PITTSBURG, PENN.

Hirien hastapena industria iraultzan Wikimedia

Dena nekazaritza iraultzarekin hasi zen, laborantza sistema berriak eta berrikuntza teknologikoekin; hala nola, lau urteko labore txandaketa (Norfolk sistema), enclousuresen sorketa...




XIX. mendeko trantsizio demografikoa © Anakel

Hobekuntza berri hauek hazkunde demografiko handia ekartzen dute: heriotza tasa izugarri jaisten da eta aldiz, jaiotze tasa handitzen da, jakien eta higienaren hazkundera dela eta.

Bizi kalitatearen hobekuntza honek sustatu egin zuen gizartearen industrializazioa. Batik bat, jendeak, haren lehen mailako beharrak asetuta ikusi zituenean, kezkatzen hasi zelako bigarren mailako beharretaz: hau da, lehen, luxuzkoak ziren beharrak, lehen mailakoak bihurtu zirelako hasi zen dena.

Industriazilatzeko behar hau asetu nahian, energia-iturri berri bat bilatu zen, eta lurrunean aurkitu zuten. Energia-iturriaren erabilerari esker manufakturetatik igarotzeko prozesua sustatu egin zen, baina egiazko iraultza 1769an gertatu zen. Urte hartan, lurrun-makina iraultzaile bat etorri zen, James Watt-ek sortutakoa. Asmakizunari esker, denetariko makinak jarri ziren martxan, bai industrian bai nekazaritzan. Gertatzen ari ziren aldaketa guztien ondorioz, gizarte industrial berri bat sortzeko beharra ere etorri zen.



James Watt-en lurrun makina © Vidasostenible




## 2. Gizarte industrial berria

Industria-gizarte berrian, bi talde nagusietan banatu zen gizartea: burgesian eta proletariotzan. Burgesek, kapitala zuten eta industria eta negozio berrien jabeak ziren. Proletarioak berriz, langileek osatutako klasea zen, hauek fabriketan, meategietan eta abarretan egiten zuten lan, soldata baten truke.

Proletarioek oso baldintza txarretan lan egin ohi zuten. Meategietan, presio-atmosferiko oso handien eraginean, aire kalitate osasungaitza eta iluminazio txarrarekin lan egin behar zuten. Edota fabriketan, batzuetan produktu toxikoak lantzen, besteetan lan-arduradunaren erasoak jasaten...

Bi leku hauetan, gizon, emakume zein haur lan egin zezaketen, aldiz, dudarik gabe tratatu txarrenak pairatzen zituztenak haurrak zein emakumeak ziren. Normalean gainera, bi hauek gizonek baino soldata txiroagoa zuten, lan ordu gehiago lan eginez.



XIX. mendeko burgesia © Humanidades



XIX. mendeko proletariotza © Nuevatribuna

Hiriko gizartea bi talde hauetan zatitzen zen bitartean, beste hainbat aldaketa gertatzen hasi ziren gainerako gizartean. Nekazari kopuruak behera egin zuen, horietako gehienek industralizazioak ekarritako hobenkuntzengatik langabezian gelditu ziren, horrela gehiengoek hirietara emigratu zuten.

Antzekoa gertatu zen artisau eta gremioekin. Fabrikak, hauen lana egiteko modu hobe, azkar eta ekonomikoagoa aurkitu zuten; hortaz gremioko langileek, haien lanak utzi behar izan zituzten eta hiriko proletario bihurtu ziren.

Bestalde, XIX. mendeak aurrera egin ahala, erdiko klasea deiturikoa eratu zen. Gizarte horretako jendeak ez zuen kapital handirik ezta jabetzarik ere, baina ez zituzten eskuko lanik egiten.

Klase horretako jendea lanbide liberaletako profesionalek osatzen zuten, hau da: abokatuek, medikuek, irakasleek, etab. Industria gizartean ere zenbait garrantzizko lan ere sortu ziren: teknikariak, ingeniariak, funtzionarioak, bankako enplegatuak...



### 3. Hirien hazkundera


Hirien industrializazioak aldaketak eragin zituen biztanleriaren kokapenean.

Industrializazioaren ondorioz, hiritartze-prozesua areagotu egin zen. Hiriak handitu ziren, garraiobide berriak eta zerbitzuak ezarri ziren.

Barne emigrazioa landa eremuetatik zetozen jendeagatik izan zen. Hiri hazkunde prozesua Europako herrialde guztietara zabaltzen hasi zen. Horrela bihurtu zen Europa, kontinente industrializatua.



Hirien hazkundera XIX. mendean © National Geographic



Bartzelona berritzeko "Plan Cerdá" Wikimedia

Hiriak hain azkar handitu izanaren ondorioz, gizarte-segregazio handia gertatu zen auzoen arabera: Burgesiak alde zaharretik alde egin zuen, eta hiri askotako harresiak eraitsi egin ziren burgesen etxebizitza berri eta erosoak eraikitzeko nahiz etorbide handiak eraikitzeko, horregatik bizitegi-auzoak sortu ziren; hau da, zabalgunek, zerbitzu publiko hornituta, hala nola argiztapenaz eta estolderiaz.

Bizitegi-auzoetan, bulegoak, dendak eta etxebizitzak ezarri ziren, burgesiaren aberastasunaren erakusgarri.

Hirietako langileak aldiz, langile-auzoetan finkatu ziren. Auzo horiek inolako plangintzarik gabe hazi ziren lantegietatik hurbil. Ez zuten azpiegiturarik eta eraikin barreneko etxebizitzak txikiak ziren, ez zuten txorrotako urik eta bertan familia bat baino gehiago bizi zen.



Langile auzoa © Fao



Langile auzoa © Historiaencomentarios



## 4. Lehenbiziko langile erakundeak


Proletariotza gora zihoan heinean handitzen ziren industria gizartearen bidegabekeriak eta langileen miseria; horrela sortu ziren langileen eskubideak defendatuko zituzten lehen sindikatu, elkarte eta pentsamendu berriak.

Ludismoa (makinen kontrako mugimendua) edota kartismoa (langileen lehen partidu politikoa) izan ziren mugimendu horietako batzuk, baina garrantzitsuenak, eta historiaren memorian gordeta geratu direnak, Sozialismo utopikoa, Marxismoa eta Anarkismoa izan ziren. Amankomunean ezaugarri asko dituzten arren, gehienetan bakoitzak pentsamentu hori defendatzeko modua da elkarren artean desberdintzen dituen.

Sozialismo utopikoa, izenak dioen bezala, gizarte ideal bat proposatzen zuen: gizabanakoen duintasuna, ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatua, gizarte-berdintasuna... Charles Fourier, Étienne Cabet eta Robert Owen izan ziren pentsamolde honen defendatzaile nagusiak. Ideia hauek; hala ere, ez ziren arrakastatsuak izan.



Robert Owen Wikimedia



Karl Marx Wikimedia

1848an Karl Marxek eta Fredrich Engelsek Alderdi Komunistaren manifestua argitaratu zuten, bertan, marxismoaren lehenbiziko adierazpena azaltzen zen. Hiru oinarri zituen: Iragana etengabeko klase-borroka gisa ulertuta aztertzen zuten, orainaren kritika egiten zuten (kapitalismoaren kritika) eta gizarte komunista berri bat aurkeztu zuten. Proletarioen diktadura ezarri nahi zuten ere, jabetza pribatua desagerrarazteko, azkenik klaseen desagertzea eta gizarte igualitario bat proposatzen zuten.

Anarkismoaren doktrina ez da marxismoarena bezain homogenea. Anarkismo terminoan zenbait ideologoren banakako proposamenak biltzen baitira. Korrante anarkista guztiek berriz, autoritaterik gabeko eredu alternatibo bat proposatzen zuten.

Hauek izan ziren haien proposamenen ardatz nagusiak: jabetza pribatua kritikatu eta jabetza kolektiboaren defendatzea, estatua egotearen aurka zeuden (tresna zapaltzailetzat hartzen zutelako) eta Estatuaren ordezkari komunak askeen alde zeuden. Apolitikotasuna defendatzen du eta ez ditu alderdi politikoak onartzen, masen batekotasuna, indibidualismoa eta zuzeneko ekintza dira ideologia honen beste oinarri batzuk.

XIX. mendearan lehen erdialdean, Pierre-Joseph Proudhon frantziarra izan zen anarkismoaren sustatzaile nagusia. Geroago, Mikhail Bakunin errusiarrak adierazi zuen zapalduetako gizarte-sektore guztiek burutuko zutela iraultza eta kapitalismoaren suntsipena.



Mijail Bakunin © Biografiasyvidas





# Poxpologileen ezaugarriak



Poxpoloen industria XIX. mendearen hasieran hasi zen eta XX. menderaren erdialdera arte iraun zuen. Garai hartan krisialdian erori zen industria txiskeroen agerpena eta ugaritzearekin.

Industrian lan egiten zuten langileen egoera zertxobait aldatzen zen baldin eta non zegoen lan egiten zuten fabrika.

Baina horietan guztietan hainbat elementu zeuden amankomunean: lan baldintzak kaxkarrak ziren, soldata oso baxuak jasotzen ziren, ez zegoen ia langileen eskubideak defendatzen zituen sindikaturik, fosforoak gaixotasun asko eragiten zituen... Eta batez ere fabrika guztietan nabarmentzen zena emakume langileen kopurua zen.

Langile gehienak emakumezkoak ziren, 13 eta 20 urte bitartekoak. Haur asko ere lan egiten zuten fabriketan eta bi talde hauek ziren batez ere arduradunen erasoak jasotzen zituztenak.



“Matchmakers’ union” -ko partaideak © Wellcomecollection

Batez ere emakume hauek izan ziren XIX. mende osoan poxpologileen lan baldintzak defendatzeko grebak eta mobilizazioak bultzatu zituztenak, mundu osoan zehar. Batzuk oso famatuak; hala nola Britania Handikoak. Beste batzuk ez hainbeste; besteak beste Irungoak. Batzuk arrakastatsuak izan ziren, aldiz beste batzuk jendearen oroitzapenetik ihes egin dute...

Baina mugimendu guztiak, txikiak zein handiak, ur tanta txiki bat izan ziren aldaketaren eta berdintasunaren bidean. Hortaz, gogoan izan behar ditugu greba eta mugimendu horietan parte hartutako neska, gizon eta emakume guztiak. Denak izan baitziren, uste edo ez, garrantzitsuak gure historian eta izango dira gure etorkizunean.





Britania  
Handiko  
poxpologileak



# 1. Aurrekariak

Poxpologileak, gehienak emakumeak eta nerabeak, ingelesez "Matchwomen" deiturikoak, fabriketan lan egiten zuten baldintza kaxkarretan: hamalau orduz, gizonetzkoak baino soldata baxuagoarekin, mehatxu eta erasoan azpian lan egiten, fosforoaren kalteagatik gaixotasunak pairatzen...

Baina hori aldatzeko prozesua hasi zen 1888ko uztailaren 2an. Londreseko Bryant & May poxpoloen fabrika lan egiten zuten 1400 emakume greban jarri zirenean.



"Bryant & May's"-eko poxpoloak Wikimedia

Emakumeek egunean hamalau ordu lan egiten zuten eta astero bost txelin baino gutxiagoko soldataren truke. Hala ere, ez zuten beti soldata osoa jasotzen isun sistema baten ondorioz, hiru peniket txelin batera bitartekoak ziren. Emakumeek udan 06:30etik arratsaldeko 18:00ak arte egiten zuten lan. Langileak berandu iristen baziren, egun bateko soldata erdia kentzen zieten.

Emakumeen osasuna ez zitzaien axola empresaburuei. Nahiz eta poxpoloen fosforoengatik gaixotu, larruazala horia jarri eta ilea erori. Aurpegiaren zati osoa berde eta gero beltz bihurtu ohi zen, usain txarra gelditzen zen eta azkenean heriotzara eramaten zieten. Fosforoa txuria (gaixotasun gehienak eragiten zituen) Suezian eta Estatu Batuetan debekatuta egon arren, Britania Handiko gobernuak uko egin zion debeku horri.

# 2. Greba

Poxpologileak mugimendu aktibistetan hasi ziren 1870tik aurrera. Azpimagarria da 1871an gobernuak fosforoaren gaineko zerga inposatu nahi izatea. Zerga berri honek, poxpologileen lana kaltetuko zuelakoan, 10.000 langile baino gehiago batu ziren Londreseko Victoria Parkean (gehiengoak emakumeak eta neskak 13 eta 20 urte bitartekoak). Bilera horren ondorengo egunean parlamentuaren etxeetara abiatu ziren langile horiek, eta garaiko aldizkarien arabera poliziek biolentzia handiz jazarri zituzten.

1888ko ekainean, Anni Besantek Clementina Black entzun zuen Emakumeen lanari buruzko hitzaldi bat ematen Londresen "Fabian Society"ren bilera batean, eta ekainaren 23an artikulua idatzi zuen bere egunkarian, The Link. "White Trafficking in London" izeneko artikuluan. Horretarako, Bryant & May fabrikako hainbat langile elkarrizketatu zituen eta lehen aipatutako egoeraren berri eman zuen.



"Matchmakers' union"-ko Komitea Wikimedia

Kritika honen aurrean, enpresa artikulua hori oker zebilela frogatzeko, langileak agiri bat sinatzera behartu zituzten, euren lan baldintzekin pozik zeudela esanez, modu batean jendea engainatzeko. Beraz, emakume talde batek agiria ez zuenez sinatu, enpresatik kanporatu zituzten, hori dela eta, fabrikako 1400 emakumeak greba antolatu zuten.



Hainbat aldizkari famatuen editoreak (hala nola, Pall Mall Gazette edo Labour Elector aldizkariaren editoreek) Anni Besantekin batu, greba defendatu eta hau aurrera ateratzea ahaldegindu zuten. Hala ere, beste aldizkari batzuk; hala nola, The Times, mugimendua kritikatu zuten, esanez Besant bezalako iraultzaileek bakarrik polemika bilatzen zutela.

Besantek, William Stead eta Henry Hyde Champonekin batera, egunkarietan Bryant & May fabrikaren kontra egiteko deialdia egiten zuen bitartean, fabrikako emakumeekin lehenetariko emakumezkoen sindikatua sortu zuen.

Bertan Sarah Chapman bezalako langile iraultzaileekin batera sortu zuen "Emakume poxpologileen sindikatua" hain zuzen ere.



Sarah Chapman Wikimedia

Hiru aste eta gero, fabrikak, kanporatutako langileak berriz kontratatatu zituen eta isun sistema kentzearen hitza eman zuen, beste hainbat hobekuntza langileen egoeran ematearekin batera.

## 2. Ondorioak

1901.-an, greba eta 3 urte beranduago, Gilbert Bartolomew, Bryant & May-eko zuzendari nagusiak, enpresak fosforo txuria erabiltzeari utzi ziola iragarri zuen. Ez langileen egoera hobetzeko asmoarekin, baizik eta enpresaren ekonomia egoera larrian zegoela ikusi zuenean.

Nahiz eta momentuan, emakumeen martxak, Londreseko auzo aberatseenetakoen barrenean, hiritarren gaitzespena jaso, balio izan zuten emakume hauen hitzak parlamentura ailegatzeko eta bertan entzunak izateko. Charles Bradlaugh izeneko parlamentariaren hitzei esker, adibidez, langileak hiru diputatuekin bilera batean elkartu ahal izan ziren.

Salbazioaren elkarteak deiturikoak fabrika berri bat sortu zuen, non fosforo gorria erabiltzen zen txuriaren ordez, eta gainera langileen egoera hobea zen, hori baitzen fabrikaren helburu nagusia: erakustea fabrika produktibo bat baina aldi berean langileen eskubideak defendatzen zituena.

Hala eta guztiz ere, fabrikak ezin izan zuen fosforo txuriarekin lehia egin eta bere ateak itxi behar izan zituen 1901ean.

Komunen ganbera fosforo txuriaren erabilera debekatu zuen 1910tik aurrera. Bernako tratatua jarraituz, poxpolo hauek 1906tik aurrera debekatuak egon behar zuten.

Iraultza honek, aurrerapausu handia suposatu arren, lana ez zen guztiz bukatu eta Annie Besant, William Stead, Catherine eta William Booth eta Henry Hyde Champonekin batera emakumeentzako eskubide gehiago lortzeko borrokan jarraitu zuten.



Emakumeak poxpolo fabriketan lan egiten Wikimedia





Carabanchelgo

poxxpologileak



# 1. Aurrekariak

Madrilen emakume asko ziren poxpoloen fabriketan lan egiten zutenak, gehienak "Carabanchel Bajo" izeneko hegoaldeko auzoan zegoen fabrika. Fabrika horretako lan eta soldata baldintzak Madrilgo fabriken artean okerrenak ziren eta horrek eraman zuen bertako emakumeak mobilizazioara.

Carabanchelgo fabrika zehazki, Espainiako zaharrenetarikoa zen, 1886tik abian baitzegoen. 1956ra arte, asko izan ziren faabrikaren jabeak. Alejandro Sánchez izenekoarekin (1889tik 1992ra arte) izan zuen produktibitate handiena, gero Estatuaren jabetza izatera pasa zen eta azkenik, 1922an, Ildefonso Fierrok hartu zuen "Compañía arrendataria de Fósforos S.A."ri gehituz.

Poxpoloen industriaren gainbehera XX. mendeko bigarren hamarkadan hasi egin zen txiskeroen agerpenarekin, hauek kaltetzen zutelako poxpoloen salmenta indizeak. Hortaz, poxpologileak, beren lana arriskuan zegoela ikusiz hainbat eskakizun egin zituzten metxeroen salmenta debekatzeko eta hauen erabilera zigortzeko.

Hala ere, poxpoloen industriaren krisialdiak aurrera jarraitu zuen. Hortaz, "Compañía arrendataria de Fósforos S.A." bere langileen lan egunak murriztu behar izan zituen, astean 3 edo 4 egun lan eginez.

Horrela fabriken ixtea eragozten zen; aitzitik, lan egunak murriztuz langileen soldatak ere murrizten ziren eta hauen baldintzak, jada kaxkarrak zirela, okertu egin ziren eta familia asko miserian geratu ziren.

Bitartean, emakumezkoen soldatak gizonezkoenak baino baxuago mantentzen ziren, normalean gizonezkoek 7.5 pts (gaur egungo 0,045 € izango ziren) jasotzen zituzten eta emakumezkoek 5pts (0,030 €) , gutxi gora behera. Soldatak lan motaren edo arduraren arabera aldatu arren, emakumeen soldatak beti baxuago mantentzen ziren.

Aipatzekoa da poxpologileak, beste industria batzuen aldera zituzten desabantailak; izan ere, lana ez zen belaunaldiz belaunaldi igarotzen eta gainera ez zuten emakumeak abiatutako sindikaturik sortu oso aurrera arte eta horrek eragin zuen industria mota honen langileen soldatak beti besteenak baino baxuagoak mantentzea.



Emakumeak Carabanchelgo fabrika lanean © Twimg



## 2. Mobilizazioak

1908ko ekainaren 22an izan zen Carabanchelgo emakume poxpologileen lehenengo mugimendua. Askoren esanetan, emakume poxpologileak subproletariotza osatzen zuten, beraien eskubide falta eta baldintza txarreatik. Horregatik, Vadilloko Markesa alkate izendatua izan zenean, langile talde bat joan zen harengana bere eskubideak defendatzeko sindikatuak sortzeko baimena eskatzeko.



Carabanchelgo emakume poxpologileak antolatutako greba © Twimg

Urte bereko abuztuaren 24ean, Carabanchelgo fabrikaren lehenengo greba gertatu zen. Zuzendariak langileen eskakizunak ez onartzea eta hauetako 100, gutxi gorabehera, kaleratu izanak sortu zuen greba. "El País" aldizkariak jaso zuen berria oso hizkuntza matxista eta patriarkalean. Egunkariaren esanetan, kontrolik eta antolakuntzarik gabeko greba izan zen, geroago Guardia Zibilak esku hartu zuen, eta langile talde handi bat atxilotu zuten.

Hori izan zen hurrengo urteetan gertatutako mugimenduetako bat. Geroago, 1925ean greba errepikatu egin zen, berriz ere, langileen arteko berdintasuna bermatzea eskatzen zuten baita soldaten hobekuntza. Aldi honetan Carabanchelgo alkatearengana joan ziren zuzenean. Alkatearengana joango dira beste hainbat grebetan ere.

Errepublikara garaian bi sindikatu zeuden abian: "Unión cerillera" (UGTkoa) eta "Fraternidad cerillera". Hauen arteko desadostasunak zenbait borroka eragin zituen ere; adibidez, greba antolatzeko era edota zer proposamenak onartu eta zeintzuk ez.

Hainbat greba eta gero, Britania Handian ez bezala, Carabanchelgo poxpologileak ez zuten bere soldatetan inolako hobekuntzarik izan eta langileak 3 egun soilik lan egiten jarraitu zuten.

Gerra zibila garaian bonbek suntsitu zuten fabrika eta nahiz eta gerra bukatu ondoren berriro eraiki, ez dago dokumentu gehiagorik bertako lan baldintzen inguruan.



### 3. Ondorioak

Carabanchel, bere kokapena zela eta, erabakigarria bihurtu zen poxpolo fabrika guztien antolamendua prestatzeko momentuan eta bertan sortu ziren hainbat sindikatu: *La Federación* besteak beste.

Sindikatu honek, zenbait aurrerapen lortu zituen poxpoloen fabrikentzako; hala nola, hiru eguneko lan-astea luzatzea (langileen soldatak handitu nahian), emakumeak erditu baino hilabete lehenagoko eta ondorengoko soldata abonatzea, "seguru" antzeko zerbait izatea istripuen kasuan edota erretiratzeko aukera.

Neurri hauek eraginkorrak izan arren, ez ziren fabrika guztietan ezarri eta horrela langile asko miserian bizitzen jarraitu zuten denbora luzez.

1934. urte inguruan, Carabanchelgo fabrikaren egoera geroz eta larriagoa zen, eta ez enpresak ezta gobernuak ere egiten ziren kargu egoeraz. Aldi berean, ez zioten jaramonik egin sektoreko emakumeen berdintasun deiarri.

Horrela, *La Federación*-ek lortutakoa desegin zen eta 3 eguneko lan-asteak bueltatu ziren, Gerra Zibilara arte.

Bertan ahaztutak geratu ziren hainbat eta hainbat emakumeen ahaleginak mende erdi baten ondoren lan-berdintasuna lortzeko aldera.

Carabanchelgo mobilizazioak azken finean boterea zeukaten gizonentzako eta sindikatuentzako politika kontu bihurtu zen.

Azkenean, emakumeek burua altxatu zuten baina gizonak izan ziren altxamendu horretaz aprobetxatu zirenak eta horrela lortu zituzten zenbait hobekuntza beraiek ere lan egiten zuten fabriketan baina inongo momenturik ez, bertan zeuden emakumeentzat edo bien arteko berdintasuna bermatzeko.

Emakume horiek benetan eskatzen zutena ahaztu eta haien eremura eramane zuten berdintasunaren afera, emakumeen borroka ahaztuz.



Carabanchelen fabrikatutako poxpolo kaxa © Wordpress





Irungo  
poxpologileak



## 1. Aurrekariak

Irunen hiru poxpolo fabrika zeuden, ezagunena Azken Portuko Junkaleko Andre Maria izan zen. Gerra baino lehen, Irungo 600 emakumeek lan egiten zuten hor, haien lana poxpoloak lotu edo kaxatxoetan sartzea zen. Lana bukatu ondoren, haiek egindakoa pisatu eta horren arabera jasotzen zuten soldata.



Irungo poxpolo fabrika © DiarioVasco

## 2. Greba

XX. mendean hasi zen dena, 1903an lankide bat kaleratu egin zuten eta horren ondorioz 30 emakume poxpologilek planto egin eta lana utzi egin zuten. Urte batzuk beranduago, poxpologileen aldeko sindikatua sortu zuten, sindikatu feminista deitu zioten.

1920. hamarkadan greba eta borroka famatuena egin zituzten, soldata igoyeraren alde eta ekoizpenerako material faltagatik etenaren aurka. Garai hartan sektorea krisian sartu zen, eta horrek protesta handiak eragin zituen. Sindikatuen lanari eta udal laguntzari esker, soldatak beste fabrikekin berdintzea lortu zuten.



Irungo poxpolo fabrika © Wordpress

1925. urtearen inguruan, jakin dezakegu poxpologileak emakume gazteak zirela (23 urteko bataz bestekoarekin), eta gehiengoa ezkongaiak ziren. Hauek, batez ere Larretxipi, Contracalle, Santa Elena, Santiago, Behobia eta Meaka eta Bidasoako baserrietan bizi ziren.

## 3. Ondorioak

Irungo poxpologileak langile askorentzat eredu bihurtu ziren eta beraien pausoak jaraitu zituzten, ondorioz, fabrika askotako langileek oso gogor borrokatu zuten.

Emakume asko egon ziren poxpolo fabriketan lanean baina badago emakume bat beti agertzen dena: Rosita Iglesias.

Gerraren ostean ezarritako diktadura frankista gogorra izan zen emakumeentzat; lan merkatutik, eta beraz poxpolo fabriketatik ia desagerraraziz. 1990. urtean itxi zuten betirako poxpolo fabrika.



The background of the entire page is a repeating pattern of stylized botanical elements. It features light blue flowers with five petals and a central vein, orange leaves with serrated edges, and orange stems with small, round buds. The pattern is scattered across the white background, creating a delicate and artistic texture.

# Rosita Iglesias



Rosita 1907an jaio zen, Salamankako Vitgudino herrian.

Ondoren, Irunera joan zen eta bertan Irungo poxpoloen fabrikan lanean aritu zen, ez hori bakarrik, bertako langileekin batera hainbat mobilizazio antolatu zituen. Irungo fabriketan gertatutako greba gehienetan parte hartu zuen eta bertako emakumerik garrantzitsuena bilakatu zen.

Gazte gaztetik, militante baita aktore lanetan trebea zen eta jende aurrean hitz egiteko gaitasun handia zuen emakume honek.

UGTko jarraitzailea zen eta bertako kideek bera hautatu zuten Sobietar Batasuna ezagutzeko bidaia batean, 1935 urtearen inguruan; hau da, errepublika garaian. Bertara ordezkari gisa joan zen.

Sobietar Batasuna eta Espainia garai horretan antzeko ideologia zuten; hala ere, UGT-k uste zuen oraindik Espainiak Sobietar Batasunetik ideia asko txertatu behar zituela. Horrela errepublika garaian UGTk ideologia komunistaren defendatzaile handienak SESBera eramaten zituen.

Errusian gertatutako 1917ko iraultzak, zenbait talde iraultzaile Espainian errepikatu nahi izan zituzten, nahiz eta ez izan eraginkorrak. PSOE bera, izan zen mugimendu hauetako sustatzaile nagusienetako bat eta talde hau zen bereziki Sobietar Batasuneko kontuetaz informazioa zeukana.

Denok dakigu PSOEk eta UGTk oso ideologia antzekoak defendatzen dituztela, beraz ez da harrizkoa UGTk ere Sobietar Batasunarekin harreman estua izatea.



# Bibliografia

“Mundu Garaikidearen Historia” liburua, Vicens Vives argitaletxea

<https://www.irun.org/eu/berdintasuna-eta-igtbiq/emakumeen-aztarnak-irunen/12-pospologileak>

[http://www.asociacionhistoriasocial.org.es/download/VII\\_Congreso/2\\_Sesion/2.\\_5\\_Diaz\\_P.\\_Cerilleras\\_Carabanchel.pdf](http://www.asociacionhistoriasocial.org.es/download/VII_Congreso/2_Sesion/2._5_Diaz_P._Cerilleras_Carabanchel.pdf)

<https://solidaridad.net/encendiendo-una-luz-en-la-historia-the-matchwomen/>

<https://www.irun.org/images/informacion-temas/directorio-tematico/igualdad/docs-img/Historia-mujeres-Irun-libro.pdf>

<https://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/10891/MGarridoCaballero08de19Capitulo4.pdf?sequence=8>



# Argazkiak

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/archive/b/b8/20150530061622%21Monongahela\\_River\\_Scene\\_Pittsburgh\\_PA\\_1857.jpg/120px-Monongahela\\_River\\_Scene\\_Pittsburgh\\_PA\\_1857.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/archive/b/b8/20150530061622%21Monongahela_River_Scene_Pittsburgh_PA_1857.jpg/120px-Monongahela_River_Scene_Pittsburgh_PA_1857.jpg)

<https://www.anakel.com/liburua/contenido/gizarteziak/2eso/2/images/17.gif>

[https://www.vidasostenible.org/wp-content/uploads/2020/04/James\\_Watt.jpg](https://www.vidasostenible.org/wp-content/uploads/2020/04/James_Watt.jpg)

<https://humanidades.com/wp-content/uploads/2018/08/burgueses-2-e1576983438643.jpg>

<https://www.nuevatribuna.es/asset/thumbail,992,558,center,center/media/nuevatribuna/images/2015/06/20/2015062013400143840.jpg>

[https://historia.nationalgeographic.com.es/medio/2020/03/10/01-03-plaza-hannover-acera-londres-foto-bridgemanaci\\_53e607e3\\_1200x630.jpg](https://historia.nationalgeographic.com.es/medio/2020/03/10/01-03-plaza-hannover-acera-londres-foto-bridgemanaci_53e607e3_1200x630.jpg)

<https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/8/89/PlaCerde1859b.jpg/675px-PlaCerde1859b.jpg>

<https://www.fao.org/3/x5356s/x5356s02.jpg>

<https://i0.wp.com/historiaencomentarios.com/wp-content/uploads/2017/01/barrio-de-penuelas.jpg?fit=800%2C521&ssl=1>

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/7/7f/Portrait\\_of\\_Robert\\_Owen.png/330px-Portrait\\_of\\_Robert\\_Owen.png](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/7/7f/Portrait_of_Robert_Owen.png/330px-Portrait_of_Robert_Owen.png)

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/7/7d/Marx\\_color.jpg/330px-Marx\\_color.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/7/7d/Marx_color.jpg/330px-Marx_color.jpg)

<https://www.biografiasyvidas.com/biografia/b/fotos/bakunin.jpg>

<https://iiif.wellcomecollection.org/image/L0010183/full/300,/0/default.jpg>

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/a/ac/Bryant\\_%26\\_May\\_%E2%80%98Pearl%E2%80%99\\_safety\\_matches%2C\\_London%2C\\_England%2C\\_1890-1\\_Wellcome\\_L0058858.jpg/220px-Bryant\\_%26\\_May\\_%E2%80%98Pearl%E2%80%99\\_safety\\_matches%2C\\_London%2C\\_England%2C\\_1890-1\\_Wellcome\\_L0058858.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/a/ac/Bryant_%26_May_%E2%80%98Pearl%E2%80%99_safety_matches%2C_London%2C_England%2C_1890-1_Wellcome_L0058858.jpg/220px-Bryant_%26_May_%E2%80%98Pearl%E2%80%99_safety_matches%2C_London%2C_England%2C_1890-1_Wellcome_L0058858.jpg)

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/d/d8/Strike\\_committee\\_of\\_the\\_Matchmaker%27s\\_Union\\_Wellcome\\_L0010182.jpg/1280px-Strike\\_committee\\_of\\_the\\_Matchmaker%27s\\_Union\\_Wellcome\\_L0010182.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/d/d8/Strike_committee_of_the_Matchmaker%27s_Union_Wellcome_L0010182.jpg/1280px-Strike_committee_of_the_Matchmaker%27s_Union_Wellcome_L0010182.jpg)



[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/4/4e/Sarah\\_chapman\\_portrait.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/4/4e/Sarah_chapman_portrait.jpg)

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/5/56/Women\\_working\\_in\\_a\\_match\\_factory.jpg/220px-Women\\_working\\_in\\_a\\_match\\_factory.jpg](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/5/56/Women_working_in_a_match_factory.jpg/220px-Women_working_in_a_match_factory.jpg)

<https://pbs.twimg.com/media/DtvR9IPXcAA9DDc?format=jpg&name=4096x4096>

[https://pbs.twimg.com/media/E\\_Q0SSHXMAwcbN3.jpg:large](https://pbs.twimg.com/media/E_Q0SSHXMAwcbN3.jpg:large)

<https://karabanchel.com.files.wordpress.com/2013/11/caja-de-cerillas-fc3a1brica-de-carabanchel-madrid-dos-cromos-voluntario-catalc3a1n-cusachs-y-chica.jpg>

<https://s3.ppllstatics.com/diariovasco/www/multimedia/2023/04/14/cerillas-k0YE-748x524@Diario%20Vasco.jpg>

<https://irunantesydespues.files.wordpress.com/2012/05/empleadas-cerillas.jpg>



